

MARKINA-XEMEIN / Irakurri , gozatu eta...

EIDER MUGARTEGI

Herri bibliotekan maileguan hartzen den %75a eukaraz da. Umeen %60ak euskaraz irakurtzen du eta nagusietan %15ak. Datuak onak dira, baina, hala ere, irakurzaletasuna, eta batez ere euskarazko liburuaren irakurzaletasuna sustatzea ahaztu ezinezko betebeharra da herri bibliotekarentzat. Horrela, Euskara Zerbitzuagaz batera, euskarazko produkzioaren eta irakurzaletasunaren alde, Peru Abarka helduentzako albuma bultzatu eta Topagunearen Irakurri, gozatu eta oparitu kanpainagaz bat egiten dute.

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna maileguen bidez jakin daiteke. Esate baterako, herri bibliotekan dituzten datuen arabera, 0-4 urtekoen maileguen gehiengoa gaztelaniaz dela ikusi dute. Seguruenik, oraindik umeak irakurtzen ez dakitenez, gurasoek irakurtzen dietelako izango da. Baina datu horrek, hasieran, harritu egiten du. Adin horietatik aurrera, alderantziz, euskaraz irakurtzen dutenen kopurua gehituz doa, eta hasieran aitatutako %60 hori handitu ere egin daiteke adin batzuetan. Hala ere, gehienbat derrigorrezko irakurketa dela nabari da. Hau da, ikastetxeetan agindutakoa.

Euskal literatura eta literatura euskaraz

Nagusietan portzentaiak beste era batekoak badira ere, azken urteetan asko igo da euskaraz irakurtzen dutenen kopurua, eta adina ere igotzen doa. Dena dela, datuak ez dira txupinak botatzeko modukoak, eta euskarazko irakurketa, oraindik ere, sarritan, konpromisoari lotuta dago: euskaraz irakurtzeko ohitura hori ez galtzeko konpromisoari.

Irakurleak gehituz doazen heinean, produkzioa ere asko igo da. Horrela, euskaraz irakurtzeko aukera zabala dago herri bibliotekan, baita euskal literatura irakurtzeko aukera ere. Euskal literaturako ia-ia dena daukate, baita gaztelaniara itzulita dagoena ere, eta helduei begira antolatzen dituzten Irakurleen Txokoa eta Club de Lecturan Euskal literaturari tartea egiten diote. Aurten, esate baterako, beste batzuen artean, Harkaitz Canoren Belarraren ahoa edo Al filo de la hierba eta Patxi Zubizarretaren Eztia eta Ozpina edo De hiel y de miel irakurri dituzte.

Bestalde, arrakasta handiko liburuak euskaraz ateratzen hasi dira. Horren adibide da El niño con el pijama a rayas edo Pijama marradunaz jantzitako mutikoa ia alde batera ateratzea. Orain dela urte batzuk hori pentsaezina zen, eta hileak pasatu behar ziren euskarazko liburuak irakurri ahal izateko. Orain badaude.

...eta oparitu

Beraz, ezagunak, bereziak, lodiagoak, meheagoak, abenturazkoak, misteriozkoak... euskaraz irakurtzeko aukera badago, eta gainera, uztailaren 26ra arte, saria izango du horrek. Halantxerik, bibliotekan euskarazko liburu bat maileguan hartzen duenak euskarazko liburuak erosteko deskontua lortuko du. Txartel hori Kareaga dendara eroanda, %25eko deskontua edukiko du euskarazko irakurketa liburuetan, eta Uhagoneko bazkide bada, %50eko deskontua izango du. Beraz, irakurri, irakurtzeaz gozatu eta bateren bati opari ederra egin ahal zaio.